

• MATTIN •



ETaren su-etenaren urteurrena

Bakoitzak berean jardun!

• JEXUXMARI ZALAKAIN •

[EHUTIK KALERATUTAKO IRAKASLEA]

Hasteko, nik ez dut sinesten ETaren su-etenaren alde bakarrekoa izan zenik; hots, nolabaiteko aldebitasuna izan zuela uste baitut nik. Bidenabar esan dezadan, su-eten hura ez zela soilik euskal alderdi nazionalistekin mintzatu ondoren emana izan, baizik eta ez dakigun eran eta unean zeharka ala zuzenean, auskalo mintzakide izan zela Madrillgo gobernuaren ere eta nazioarteko indarren bat ere bai, seguraski. Ezin dut sinetsi, beraz, Madrillgo gobernuaren azetan txis egiten harrapatu zuenik, itxurak egin arren. Sinesgaitza egiten zait EAJ halako ur handitan sartzea estatuarekin kontatu gabe, nolabaiteko baimena somatu gabe. Ene irudiko, beraz, bereziki euskal gizarteari begira emanda izan arren, su-eten hark badu uzarturaren bat estatuarekin onerako, espero dezagun! : Aznarrek ETarekin eta ez EHrekin hitz egiten segitzeko duen gutziak ez al du ezer adierazten?

Ondoren sortu eta urtebetez irauten duen egoerari eszenifikazio-kutsu nabarmena hartzen diot nik: estatuak ezin du lehen pausoa eman, beraz eman dezala ETak; erakunde armatuak ere ezin du amore eman izanaren itxura erakutsi eta, beraz, has daitezela Lizarrako agiria sinatu zutenak, etab. Aldi berean, ostera, estatuak alderdi abertzaleen alde azaltzerik ez daukanez hori bakarrik falta zen! , jarre-za zaputza eta erretxina agertzea hobetsi dute Aznarrek, Mayorrek eta enparauak. Ez zait iruditzen,

beraz, estatuaren azken xedea lizarra-garaztarren asmoak zapuztea denik emaitza hobek lortzen omen direlako-edo, indarkeria-girora itzuliz ; alderantziz, estatuaren aldetik begiratuta, nahikoa eta gehiegi baita abertzale batzuek beren nortasun-zeinuak alboratu eta beste batzuek horretan laguntzen lortzea. Izan ere, estatuaren ikuspegi hutsetik erreparatuta, kosta ahala kosta ezker abertzalearen erabateko normalizazioa lortzea baita garrantzia duena.

Kontua, ordea, ez da gauzak nola hasi ziren argitzea hori gainera egunen batean jakingo da, eta ez dagokit niri , egindakoari esker sortutako giroa eta ondorioak neurtzen ahalegintzea baizik, proposamenak plazaratuz ahal bada. Ilusioa eta esperantza aipatu dira beti, egoeraren ezaugarri. Lasaitu ederra hartu dela esango nuke nik, arindura, aurreko egoeraren gordinak zekarren tentsioa jaitsi eta barealdia ekarri. Tentsio-galtzeak, ordea, lozorroa ere badakar, norbera desubjektibatuz, arazoen konponketa besteen, dakitenean, politikoen, goi-mailatan dabilzaten esku utziz.

Niri, egia esan, guztion eta bakoitzaren partehartzeak kezkatzen nau. ETaren azken agiria irakurrita bi gauza ikusten ditut: batetik, kontuak eskatzen zaizkio bereziki EAJri, zein den ez dakigun hitza bete ez duelako-edo hauteskundeetan EAJren hazkundera ikaragarria izan ez denez, uzkur da, jakina; eta hortik geldiduna, *impassea*, krisia,

etab. ; bestetik, guztioi *gogor-tzen* digu egitekoa [su-eten aurretik izandako elkarrizketetan adostua suposatu nahi dut]: Madrili eta Parisi begiratu gabe jardun, prozesu konstituziogileari hasiera eman, euskal herritar gisa, nazio bat bezala, pentsatzen eta aritzen hasi, agorturik baina indarrean dagoen marko politikoa gainditu eta Euskal Herriak erabaki dezala.

Lizarra-Garaziko taldeek lehen urteurrena ospatzeko egin dituzten deklarazio, adierazpen, esplikazio eta azalpen ofizialean agiri nagusiaren gizarteratze-prozesua azpimarratu da, honekin eta harekin hitz egin beharra, ikerketa-taldeen antolaketa, prozesuaren kudeaketa. Jendea *lizarra txikiak* antolatu, aurkezpenak egin eta antzeko lanak eskaintzen zaizkio, hots oso ona izanda ere alde aurretik, edo behintzat gorago, hartutako erabakiaren *propagandista*, hedatzaile izatea. Hori ere egin beharko da, jakina. Hala ere, benetako ahaleginetik urruntzea ez ote den nago. Horrela jardunez gero, itxaron dezagun, baina badago jarduteko beste modu bat: bakoitzak bere sektorea aztertu, antolatu eta kanpotik inposatutako legeak desobeditu, proiektu propioa proposatu. Horrela, behetik gora arituz, guztion partaidetza segurtatzen da, norberari erantzukizun bat dagokio, subjektibazioan irabazten da, jendearen ahalegin guztiak abiarazten dira, eta gero gerokoak. Adibideak badaude, jende erabakitua ere bai.

JUAN LUIS ZABALA

At



Usurbildik Oartzuneraino saihesbide zabal eta nasai bat egingo omen d(ig)ute aurki, Donostia inguratzeke, tarte batzuetan sei karril izango dituen. Gero eta abiadura biziagoan, gero eta erosoago ibil gaitzen guztiok batetik bestera, inoiz eta inor baino europarragoak izan gaitzen.

"Ibili, ez egoteko inon; / ibili, ez joateko inora...", dio JosAnton Artzek *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* liburuko 15. orrialdeko poemari, kamio berri gero eta azkarragoak egiteko joerari buruz idatzitako poema batean. Kamiogintza oinarri hartuz, gizarte-eredu oso bat jartzen du zalantzan poetak, bizitza ulertzeko modu bat, bizitzeko modu bat: egun eta hemen nagusitzen ari zaiguna.

Gehiago ere badira Artzek bezala pentsatzen dutenak. Baina, Artze bezala, at daude horiek ere, *out*, diskurtso nagusitik, eztabaida nagusitik kanpo. Esate baterako, Pako Aristik ez zuen luze iraun ETBko *Firin-faran* saioko tertulian, eztabaida nagusitik at zeudelako bere iritziak, zalantzan jartzen zituelako eztabaida ustez serio eta taxuzko batean zalantzan ezin jarri diren oinarriko kontuak. Gisa berean, talde ekologisten ekimenak ere aintzat hartzeok dira, eta are sarritzekoak ere inoiz, gehiegikeriarik larrienen salaketa egin eta alternatibak planteatzen dituztenean; diskurtso nagusitik at geratzen dira, ordea, ikuspegi sakonago batetik, alternatibak eskaini barik gizartea antolatzeke eta bizitzeko modua aldatu beharra aldarrikatzen dutenean.

"Poesia eta filosofia ongi daude, eder eta beharrezkoak dira, edozein gizarteren apaingarri bikain", dio diskurtso nagusiak, "baina ekonomiak bizi gaitu. Aurrera egin beharra dago nahitaez, lagun hurkoa zapaldu beharra lagun hurkoak zapalduko ez bagaitu".

Udalbiltza eratu da. Aurrerapauso handi eta pozgarria izango da nazio eraikuntzan, ez dut horretaz dudarik egiten, baina niri, kanpotik ikusita, kontu aspergarria iruditzen zait, eszenografian zein edukinetan diskurtso nagusiari atxikiegia, serioaren serioz eta taxuzkoaren taxuzkoz irigarria. Barkatuko didazue. Badakizue: poetak, filosofoak...

...kornerra

MIKEL ELORZA

Topikoak

■ Raisa Gorbaxoven heriotzak, bere figuraren laudatzearekin batera, topiko zabaldua berpiztea ekarriko du: gizon ilustreen atzean dagoen emakume handiarena. Ez dut atsegin. Uste dut gizonetzko *handiak* eta emakumezko *handiak* daudela, besterik gabe. Eta ez zait gustatzen, okerra dela pentsatzeaz aparte, emakume *handia* gizonaren "atzetik" edo "itzalean" paratzen duelako. Errealitatean oinarria dutenean gustatzen zaizkit topikoak. Adibidez: Nazio Batuen edozein esku-hartze humanitarioren atzetik esku-hartze militar aurreragoko bat egon da, gaur egungo esku-hartzea ongarritu duena. EEBBek, Erresuma Batuak, Holandak eta abarrek azken hamarkadan Indonesiako Armadari armak erruz saldu dizkiote; eta oraindik orain militar indonesiarrek EEBBetako eta Erresuma Batuko kanpamenduetan *entrenatu* dira. Horra topikoak, datuetan oinarritutakoak.